



HEZKUNTZA SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Gestión de Personal

**Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2020ko uztailaren 16ko Ebazpena. Horren bidez honako ebatzi da IDEATKn diharduten pertsona batzuen zerbitzu-eginkizuna luzatzea 2020/2021 ikasturterako**

**Resolución de 16 de julio de 2020, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se resuelve la convocatoria para la prorroga de comisiones de servicios, para el curso académico 2020/2021 en IDEATK**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

La comisión de servicios, regulada en el artículo 54 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se encuentra configurada como una forma extraordinaria de desempeño de puestos de trabajo.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko ekainaren 29ko Ebazpenaren bidez aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezarri zen.

Mediante Resolución de 29 de junio de 2020, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, se reguló el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicio autorizadas para cursos escolares anteriores.

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

Así, en virtud de las facultades que tengo conferidas,

#### **EBAZTEN DUT:**

#### **RESUELVO:**

**Bakarra.-** Zerbitzu-eginkizuna 2020-2021 ikasturtean luzatzea I. Eranskinean adierazten diren pertsoneri.

**Único.-** Prorrogar la comisión de servicios durante el curso 2020-2021 a las personas que se relacionan en el Anexo I.

Luzapenak ondokoari baldintzatuta egongo dira: 2020-2021 ikasturterako IRALE programa barruan liberatuta ez egoteari, deialdi hau eragin zuten beharrak mantentzeari, eta lanpostuak karrerako funtzionario batek ez betetzeari.

Las prórrogas estarán condicionadas a que no tengan ninguna liberación por el programa IRALE para el curso 2020/2021, a que se mantengan las necesidades que dieron lugar a esta convocatoria, y a que los puestos no sean provistos mediante concurso de traslados

Behin ebazpen hau argitaratuta ezin izango zaio emandako luzapen horri uko egin.

No se podrá renunciar a la prórroga concedida mediante esta resolución una vez publicada la misma.



Deialdiaren oinarrietan ezartzen denez, zerbitzu-eginkizuna luzatzeko edo berorri espresuki uko egiteko eskaera ebazpen honetan xedatutakoaren arabera egiten ez dutenek galduko dute zerbitzu-eginkizunean jarraitzeko eskubidea eta zerbitzu-eginkizun horri uko egiten diotela interpretatuko da.

Tal y como se establece en el punto sexto de las bases de la convocatoria, quienes no realicen la solicitud de prórroga o la renuncia expresa conforme a lo establecido en la presente resolución decaerán en su derecho a continuar en la comisión de servicios correspondiente entendiéndose que renuncian a la citada comisión.

### ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

### RECURSOS

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Educación

Vitoria-Gasteiz, 2020 uztailaren 16an

Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2020.

Jon Agirre Huerga  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**  
**DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL**